

EUSKAL BERTSOLARIEN JATORTASUNA

Auxe da auxe, zerbait esan bear! Aita Onaindia'k ez gaitu iñor paketan utzitzen. Lengunean emen izan dut eta beste gabe esan zidan:

—I, euskal bertsolarietzaz zerbait idatzi bear dek.

—Niik?

—Bai, ik. Lenago «Eibar» aldizkarian azaldu zuan antzera lantxo bat ez legokek gaizki OLERTI'rako.

Bera langillea bada ere, ingurukoak laster mugitzen ditu. Emen eztago pakean egoterik; ez orixe. Baiña, bertsolarieri buruz nik? Au da buruko miña eman didana! Lotsatu ere egiten naiz ortaz ezer ez dakidala esaten, eta nere ez-jakiña azaldu baiño len, obe dut berari bertso txo bat bota. Or konpon!!

*Gure Aita Santiago
beti zirrikatzen,
guztioik jarri nai gaitu
bertsoak kantatzen.*

Orain, emendik aurrerako kontuak berari eskatu. Bera izan dedilla erantzunduna.

Bertsolarien gai au ezta, lenago ere, igurtzi bakoa. Onetzaz naikoa sakondu zan Lekuona jauna bere «*Literatura oral euskérica*» liburuan, eta nere onetan, bertso tankera batzuek arinki ematea naikoa dut.

Bertsolariak dirala-ta amaika uste ta iritzi biurri entzun izan ditugu. Ba-dira olerkariekin burua-bat egiten dituztenak, eta baita kertenkeriak dirala esaten dutenak ere. Baiñan, ez bata ta ez bestea, ta gauzak azpikoaz gaiñera ipiñi gabe, bertsolarieri beren toki egoki bat emango diegu.

Bertsolariak, aintzinako Grecia'n izaten ziran *rapso-den* antzerakoak dira, bakarrik, aiek, buruz ikasitako bertsoak kantatzen zituztela ta gure auek kantatuala asmatzen dituzte. Baiña ez kirtenkeriak esateko, ziriak sartzeko ta olerki kutsuz kantatzeko baizik. Gaiñera, kirtenkeriak kantuz esateko gauza dana ere, ezta mutilla makala.

Ba-dakigu zaleak dirana erderazko itzak erabiltzen; laster erantzun bearrak ta rima ta neurria ongi erabili bearrak, euskeran bertan kontu asko ipiñi barik jardun eragitzen diote. Bakarrik, beti gertatzen dana da, euskera kontuetan, guztioik uste dugu jakintsuak gerala, naiz ta ezer estudiantu ez. Donostia'ko Bartoloneko tabernan orrelako tablero bat dute, nai duanak, bertsoak bertan idazteko, eta ara orain dala denbora gutxi zer jartzen zuan:

*Ezagutzen ditut nik
amaika itzontzi,
euskeraz dakite baña,
erderaz nagusi;
euskotar asko dira
gai ontan itxusi,
euskera maite, baña,
bat'erez ikasi.*

Ori da gure arteko lotsagarrikeririk aundiena. Bertsolariak ez-ikasiak dirala? Erdera izango da ikasi ez dutena, euskeran baintzat ez dago bereri ur emateko-rik eta. Euskera ere, munduko izkuntza guziak bezela, itz egiteko da eta arte orretan eztago bertsolariak añaikorik. Orregaitik Xenpelar batek Iparragirre'ri bota zizkion bertso auk:

*Iparragirre abilla dala
askori diot aditzen...
Eskola ona eta musika,
ori oiekin zerbitzen.
Ni enazu ibiltz n
kantuz dirua biltzen,
komediante moduan;
debalde pesta preparatzen det
gogua dedan orduan.
Eskola ona eta musika,
bertsolaria gañera...
gu ere zerbait izango gera
ola ornitzen ba-gera.
Atoz gure kalera
baserritar legera
musika oiek utzita;
Errenderia'n bizi naiz eta
egin zaidazu bizita.*

Iparragirre'k etzuan jaso desafixu ori, bada-ezpada ere.

Bertsolaria izateko, lenengotik berezko etorria bear da, ta gero ekin eta ekin urte askoren buruan. Ezta bakarrik musika baten neurrian zerbait esatea; zerbait ongi esatea baño.

Txapelketetan sekulako pruebak eragitzen dizkie, eta puntoa ongi erametetik gañera edertasuna bear du. Ara emen Basarri'k zelako edertasunakin kantatzen dituan euskal sukaldearen gorazarriak:

*Euskal sukalde biotzekoak,
gorde suaren epela!
Baña biotzak fede su-garrez
gurikatu ditezela.*

*Pakea buru izan zazute
orain eun urte bezela,
Lengo bidera itzul zaitetze,
galdu zerate bestela!*

Berriz, Kepa Enbeita, Bizkai'ko urretxindorrek onelakoak egiten zituan, olerkiz kutsuturik:

*Izaro ugarteia,
Izaro, Izaro,
Laida'tik ur-urrian
Luzaro luzaro
Itxasoan altzuan
Azke ta gozaro
Inoiz gogaitu barik
Beti antxe dago.*

*Goyan zerua eta
Beian itxasoa
Onel damotsolarik
Besarka gozoa
Bera da ugazaba,
Bera gurasoa,
Beti azke bizi dan
Zorionekoa.*

*Urriak igaro ta
Urriak irago
Ez zartu ez gaztetu,
Sen batian dago,
Zirkiñik egin barik
Arau ez onago:
Gaurko gizonok baño
Zerbait sendoago!*

Bizkai'ko bertsolarien txapelketan, Markiña'n, Azpillaga berriatutarrari galdetu zitzaientean:

*Zer egingo zenduke
txoria ba-ziña?*

Azpillaga'k

*erantzuna: Laster egingo neuke
egaziada fiña,
mundu guztia ikusten
egin alegiña;
gura izanagaitik
ezin joan baiña.*

Euskera ederra eta olerkiz heteriko bertsoak egiten Pello Mari Otaño izan da benetako maixua; bere «Aitona Gizagaixoa»-ko ataltxo bat emango dugu, zelakoa zan ikusteko:

*Iruditzen zait gaur oraindik
bera ikusten naguela,*

*arri tontortxo baten gañian
 exerita daguela;
 belaun nekatu bien tartean
 urritz-makil bat duela,
 beraren puntan ipiñirik len
 buruan zuen txapela,
 bi eskuekin gogor elduaz,
 kontu egiñaz onela,
 eta okotza oien gañean
 lotan ba-lego bezela.
 Nola jostatzen pil-pil zebillen
 ego-aizetxo epela,
 buruko ule zuri bakanak
 egara zijoazela
 esan zeikean, uste det berak
 nabaitutzen etzuela.
 Antxe nengoan, bere ondoan,
 zer egin ez nekiela,
 laguntzarik nai zuen galdetu
 edo aldegin bestela;
 itz egin zuen, eta kezkatik
 atera nintzan berela.
 Arnas lodi bat irten zitzaion
 bular estutik jaso,
 ta lenbiziko au esan zuen:
 —Nere euskera gaixoa!*

Bertso gutxi izango dira ain ederki adieraziak. Bazu-
 zuan bertsolari orrek giarra.

Bertso ederrak aipatzen asi geranez, ezin genezake
 utzi emen aipatu gabe ainbeste bertso ederren jabe
 dan Elizanburu lapurditarra; bere «*Besta biharamu-
 na*», Orixe'n iritziz euskal bertsu sailik onena dugu,
 ta guk ere ez genuke ezetzik esango. Bertsu auek,
 garai batean, Bizkai guzian zabalduak ziran, ta gañera,
 bizkaitarren euskalkian kantu izan dira. Bein Eibar'ko
 bertso zarrak biltzen ari nintzelarik, zer etzan izango
 nire ustegabea, bat-batean, Eibar'ko kanta zar bat za-
 la esanik «*Besta biharamuna*» kantatzen asi zaidanean,
 Eibar'ko euskeran gañera; ta esanik, lengo zarrak San
 Juan biaramunean kantatzen zutela. Bertso guzian jar-
 tzeke luzeegia da eta lenengoko biak bakarrik eman-
 go ditugu.

Igaran besta biharamunian,

Berek dakiten zoko batian,

*Lau andre: hirur mutxurdin, bat alarguna, jarri-
 [rik itzalian,*

Harri zabal bat belauen gainian

Ari ziren, ari ziren trukian.

Zer ote duten nik jakin nahi

*Pitxarrarekin bertze jaun hori;
Zorroa du biribilla, moko mehea, tente xutik egoiti,
Xahako bat ote den nago ni,
Hanpatua, hanpatua ederki.*

Makiña bat zar gogoratuko da bertso auekin. Izan ere, Elizanburu'ren bertsoak ederrak eta graziaz be-teak dira. Nork ez du entzun «*Ikusten duzu goizean?*»? Nork ez du ezagun «*Solferino'ko itsua?*»? Mugazandiko bertsolari eskolakoak ditugu, Etxahun eta Oxobi'n se-nideak.

Gure bertsolariak zelebrekariak erabiltzen ere ez-tira txarrak, Elizanburu'n oiek ere ez daude grazian paltaz, ala ere azken alderuntz, baña arestian esan dedan bezela, osorik ematean luzeegi egingo lirake. Ez da erreza edonolako gaiak beti musika neurriaren zen-tzunari lotuta erabiltzea, ta bertsoegiñarako ori da gutxien eskatzen dana. Adibidez zelebrekari batzuen berri emango dut.

Pernando Amezketarra, onenatarikoa ez bazan ere, bertsolaria genuen. Bein, bertsolarien batzar batean, Naparroa'ko Ametza'ri jaurti omen zion bereren bat, zirrikatze alde, eta besteak ez omen zun onera artu, eta sortu zan sortu bear etzana.

Ametza'k: *Pernando'k nere ona
ezin eraman txarra...
atzean gelditzeko
ni ez naiz mantzarra.
Zuri egiten dizute
iseka ta farra,
ekarri dezulako
alkondara txarra.*

Esan bear ba-zion, esan zion; zezen onakin sartu zan. Pernando'k ez eukan atzeko otsik. Ara Pernan-do'n erantzuna:

*Prenda artzen dirazu,
alkondararena;
bai dakit ez dedala
emen dan onena.
Txarra izanagaitik
au da neronena;
zuk ederra daukazu
bañan besterena.*

Xenpelar ere, orrela asten zanean, ez zan auntzan gaberdiko eztula. Ara, bein, nolako bertsuak egin zizkion aberastu berri zan tabernari bati:

*Kontzientzia garbia
ote dadukaik jarria?
Gizonarentzat onrra txarra dek
lapurreria.*

*Zurruapatuaz erria
egin dek etxe barria...
Ez ondo bete izan ba-uken
sagardoz neurria.*

Gaur ere ez dator gaizki zenbait tabernarirentzat. Bañan, ala ere, eztakigu noiz arduaz ase bear dan gure erri madarikatu au. Noiz izango ote ditugu mozkorak aña jakitun eta artista. Inoizko denboran gure errian petroleorik agertuko balitz, Erriojak izango lituzke ezteguak.

Bertsok badute beste bete bear bat ere, puntaorena. Puntu bakoitzak riman amaitzen dan neurri bat du, eta ori da beti ondo zaindu bear dana. Puntuok neurri askotakoak dira, laukoa, seikoa ta zortzi-koa dira geien erabiltzen diranak. Bañan, gaitzena bederatzi puntukoa da, eta an probatzen dira bertsolari onak. Lengo bertsolariak oituagoak ziran nunbait. Aiek etzuten izaten bederatzi puntukoetan ostopurik eta aintzinako txapelketetan sarri eskatzen zuten neurri ori. Gaurkoak, lasaitasunari emanak nunbait, ez dute nai bederatzi puntukoetan kantatzerik; bañan, ez dakit norañoko eskubidea izango duten orretarako. Bederatzi puntukoa baztertzean, galzorian jartzen dute, eta neurri orren oitura galtzeak bertsolaritasuna txirotuko du ta orrek ez dio inñori mezederik ekarriko.

Adibidez, bederatzi puntukoen gertaera bat emango dut: Oyartzun'go plazan omen zan, ain zuzen ere, bederatzi bertsolari bildu omen ziran, Xenpelar ta Larraburu, beren denboran onenengoak, buru zirela. Xenpelar'ek eman bear zion asiera beste guziak presentatuz, eta, ez dakit izango dan aman semerik bederatzi puntuko bertso batean zortzi lagunak presentatzeko, bakoitzaren tankera berezia azalduz. Ori zan Xenpelar egin zuana, ta ez ori bakarrik; gero Larraburu'kin bederatzi puntuko bertsoetan eztabaida jarraitu. Biak ere etziren bertsolari makurrak. Emen ere lenbiziko bertsoa bakarrik emango dugu:

*Xenpelar: PANDERIA'ko onek
memoria erne;
LEXOTU'k jartzen digu
zerbait umore;
txarrik ezin bota du
IBARRE'k naitere;
—nik oiekin ezin det
luzitu batere—;
XORROLA dotore;
baita BORDONDO're;
ARDOTX pare gabe;*

AROTZ kantore...
LARRABURU jartzen det
gobernadore.

Ba ote dago modurik, lenengoko bertsu ori baño laburrago guztien presentaziño bat egiteko? Bertso gabe ere ez litzake erreza izango. Ta gañera esan bear guziak ain egoki eraman da. Meritu gutxi duala pentsatzen duanak, artu dedilla lapitza ta papela eta egun guzian barruan jardun da ere ia asmatu al dituan orrelako bertso bikañak; nik ezetz uste. Oraingo bertsolariak ba dute or zer ikasirik naikoa.

Eta ez uste mugazandiko bertsolariak ere bederatzi puntuko orretan atzean gelditzen diranik —oraingoak ez dakit nola ibilliko diran, baña lengoak maiz erabiltzen zuten—. Ta gañera bedratzikoak betetzea ezta naikoa, zelan betetzen danari ere begiratu bear zaio, eta Otxalde'n auek alde guztiak dituzte berezitasunez ornituak:

Zahar gazte arteko au da parabola:
Zuzen esplikatzia hein bat gogor da
Gaztea ez daitake adin batez molda,
Gorputza sendo eta azkar du odola;
Zahar'ez da ola;
Iragan denbora
Etortzen gogora,
Et'ezin kontsola...

Nekez bihurtzen baita zahar arbola!

Bedratzi puntuko oitura au gorde bearrean gera. Bertsoak egiteak, beste gabe meritua badu, orrek meritu-erdi izango du beti. Bertsolari gazteak ori landu bearrean dira, eta plazetan entzuten ez dugun artean, gure bertsolaritasuna malla bat berago irudituko zaiugu. Gazteak dira ortara beartu bear diranak, ta gaurkoz baintzat bertsoz jarriko diet nere iritzia:

Zenbait bertsolari
larri dira azaldu,
alkar lotu eziñik
bedratzi puntu;
oitura jatorrena
nai dute baztertu,
ortan gauza eztanak
besteak uxatu.
Ez zuek makaldu,
orreri oratu.
Bedratzi elementu
gaitza dala lotu?
Gainbera jo ezkeru
gureak egin du.

Gaur bedratzikoak galtzen ba dugu urrengo zortzi-koa edo izango da, ta poliki-poliki, orduantxe bai

Grecia'ko *rapsoden* antzerakoak edo Erdi Aroko kolariak bezela izango dirana; buruz ikasitakoak bakarrik kantatzen. Baintzat, bide artarako itxura darara bederatzi puntukoak, norbaitek esan bai du aurraz jakiñean eta gaia ezagututa bakarrik eskatu bear litzakeala bedratzikoa. Bapo! Obe dugu beste sail batera jo.

Bertsolarien politenetariko alkarri erantzunak dira: lau puntukoak izaten dira. Batzuetan puntu bana besteaz jardutzen dira, eta urrengo maikoak jartzen die lenbiziko puntua. Goienetan, erantzun gaitza duen galderak egiten dira, guretariko askok, bertso gabe ere, nola erantzun asmatu ezindakoak, ta aiek bertsoz erantzun bear. Ori egiteko gauza eztan bertsolaria, ezta sartzen ganorazko bertsolarien artean.

Zelebren egin diran gertaera batzuek bakarrik aipatuko ditugu. Bein, Gernika'ko Euskal-Jaiak omen ziralara ta, bertsolaririk ezin paltatu; Txirrita'ri galdetu omen zien:

*Zergaitik ote dago igartuta
Gernika'ko arbola zarra?*

Txirrita'k: *Satorren batek jan diolako
azpikaldeko sustarra,
ta beste animali txar askok
bere gañeko azala;
orregaitik dago igartuta
Gernika'ko arbola zarra.*

Txirrita'k bertso ori minutu bat baño len erantzun omen zuan. Ez al da arrigarria? Baña ori ere ezta guzia. Beste batean, adarra jote alde, puntua «ist»-en amaitzen zala ipiñi omen zien; euskeraz ez zala orrela bukatzen zan itzik eta, ta Txirrita jatorra, estu ta larri urtera bage geldituko zalakoan, baña adarjotzalleak etzekien asko norekin zebiltzen. Au izan zan asiera:

*Naiago nuke ba-neuka
zuk dezun ainbat bist.*

Ta Txirrita'n
erantzuna: *Etxean ba-det txakur bat
deitzen zaiona List,
atiaren gañetik
egin ondoren pist,
azpiko zulotikan
azkar sartzen da txist.*

Besterik ezean onomatopeykoekin, bizkor billatu zuan Txirrita'k bertsoa betetzeko bidea.

Zirikada zelebriekin sartu geranez, ezin genezake amaitu Uztapide'n ateraldi bat aipatzeke. Uztapide'ri ere, juradukoak bein, pentsatu omen zuen orrelako

estuasuñtxo bat ematea, ta ara, ustez, urtera bakoa zan galdera bat nola egin zioten :

*Trenarek erruberak
zenbat ote ditu?*

Uztapide'k: *Jakin nai duanak
azpira begitu,
ipinitako guztiak
an izango ditu.*

Oiek, naikoa agiri dira gure bertsolarien argitasunak ikusteko. Gañera, aintzakotzat artzekoa da bertsolariak euskeraren alde egin duten guzia. Ala ere euskeraren batasunan alde. Bertsolariak nun-nai ulertzen dira, erririk-erri beren izkera oso zabaldurik dalaiko; ta Gipuzkoa izanik bertsolarien kabia, beste nun-naiko bertsolariak ere, bertsoгийн asten diranean, geienetan gipuzkoera artzen dute oñarriztat. Bilbo'n azkenengo egin zan txapelketan ere ori oartu giñan.

Bene-benetan txalogarriak dira gure bertsolariak, ta gure erriak dituan gauzarik baliozkoenen artean jarri bearrean gera.

Norbaitek esan z an, euskerarik etzala galduko bertsolariak diran artean. Jakiña, izkuntza galduko balitz bertsolariarik ezin egon; erderan izan ezik. Baña, esaera orrek badu orrelako zentzun bat; bertsolariak berek ematen die erriari izkuntzaren bizi nai, erriari bertsoa atsegingarri izanik alkarrengandik banandu ezindakoak direlako: bertsoa ta euskera.

Orrela izanik, betoz bertsolariak. Eta Bernard d'Etchepare'n deadarrari jaramon egiñaz, zoazte plazarik-plaza kanta-kantari.

Bertsoak gora ta bertsoak bera, ainbeste zaletu nauzute eze, eztakit neu ere ez naizen bertsolari biurtu bear,

*Euskalerrriak baitu zenbait bertsolari
kementsu ari direnak plazan kantari.*

*Indar berritu naian, euskera biziki,
orrelako gizonak, zaizkigu komeni;*

geureari eutsi,

ta zaindu maiteki

izkuntz txalogarri...

bestela ikusi:

euskera ilgo balitz, nun da Euskalerrri?

Guztiok lagundu bear dugu bertsolariak izan ditezen; berek gabe, gure erriak arima apur bat galduko luke, erbestearrak, gure erria ainbeste goratzen badute, bere etnologia arrigarriagaitik da, eta erri baten izakeran izkuntzak du baliorik geien. Izan ere, nornai arritzeko bezelakoa da gure izkuntza. Panpilli Sen-

pertarra, mugazandiko bertsolariaren aotik esango nuke nik ere:

*Euskal-Herriak ditu zazpi Probentzia,
Arrotzak xoraturik heldu gutartera:
Oainon ere segur litazke gehiago xora,
Balakite mintzatzen gurekin eskuara!*

San Martin'dar Yon

MINGOTS MAITEA

Ituna dakust nire bidean,
Samin txarroa ene barnean
Asea...!

—Ez ete bizi legea?—

Auxe dot lagun, auxe dot jaki,
Ta nazkakor yat ludiko izaki,
Naiz-ta bera izan bakea.

Bakea! Uzkur billa nabiltzu,
Gau ta egun, ta... ezin aurkitu.
Zugandik iges ibilli bear
Atsekabezko erbeste zear,
Umezurtz antzo oiur ta negar
Eztarri barne itorik dedar.

Mingotsa...!

Naigabetan ler-zori gorputza,
Amai-opaka nainoz biotza.

Amaia...!

Bizitzearen zeatz-aldia,
Oldozkunean dogun garaia,
Zorun bizitza asi unia,
Eder egarri asegarria.

Bizi zitalak agur zorian
Noiz amaituko jar nauanian,

Zalantza...!

Eder-zale etzan nire biotza,
Eder ondorik aituz bizitza?
Euki zindudan t'etsai naiatzun.
Mingots irudi ta maitetasun!

DEUNORO